

Nafarroako gobernadore zibilak 1901.ean egindako euskararen aurkako zirkularra

JUAN PEDRO URABAYEN MIHURA

Mendeetan zehar euskerak eraso asko jasan badu ere, oraindik bizirik dago, eta lan egin behar dugu aurrera joan dadin. Gaur egungo Historian euskeraren mugak atzerakada haundia pairatu duela inork ezin du ukatu. Prozesu honetan erakundeek parte hartu dute, batzutan euskeraren alde, baina gehienetan justu alderantziz. Kasu honetan erakunde zentralak izango dira erasotzaileak. Nafarroako erakundeen geldotasuna ikusiz, gizartea izango da euskeraren defendatzailea. Hau historia goibela da, hala ere jakin beharreko gauza, horrela ikusiko dugu gaurko arazoak az direla berriak, eta poztuko gara beti izan direlako bere hizkuntza maitatu duten euskaldunak.

1. EUSKERA MENDE HONEN HASIERAKO NAFARROAN: ZENBAIT DATU

Garai honetako Nafarroako egoera politikoa gero eta ezagunagoa bada ere¹, gizartea eta mentalitateak ez dira hain ikerturik izan. Gizarte guztietako ezaugarririk garrantzitsuenetariko bat hizkuntza bait da, euskarari buruzko ikerketa gehiago behar dira hobeki ezagutu nahi badugu gure historia.

1. Azken bolada honetan, garai horri buruzko ikerketa asko egiten ari dira, konkretuki 1901. urteari buruz nik neuk idatzi nuen «Católicos navarros y anticlericalismo: elecciones generales de 1901», *II Euskal Mundu-Biltzarra -Euskal Herriaren Historiari buruzko Biltzarra», Txertoa argitaldaria, Donostia, 1988, VI. alea, 345-361 orr. Lan hori «Geografía y Sociología electoral de Navarra, 1890-1936» delako proiektu barruan egin nuen, (PR. n.º 1930/82), CAICYT-ek finantzaturik eta Ignacio Olabarrik zuzendaturik. Proiektu honek CAMP-en ikerketa aparteko saria jaso zuen 1988-89.eko deialdian.*

Komunikazio honek ikertzen duen garaiko euskerari buruzko zenbait liburu eta artikulua badaude. Aipagarrienak dira Blas Fagoagarena ², Urquijorena ³, Angel Irigarayena ⁴ eta González Ollérena ⁵.

1901.eko prentsa irakurtzen nuenean zenbait datu berri aurkitu nituen, euskerari dagozkionak.

Izan ere, 1901.eko otsailean Nafarroako Notal Ikaskidegoko batzarre zuzentzailerak erabaki zuen notaritza hutsarako lehiakideek euskera azterketa egitea ⁶. Bi urte beranduago, Datok dekretu bat atera zuen notaritzarako oposaketak Madrilén egingo zirela adieraziz, eta «La Tradición Navarra» egunkariak gogor kritikatu zuen dekretu hori kontutuan hartzen ez bait zuen ez nafar legislazio berezia ezta euskal hizkuntza ere ⁷.

1901.eko martxoaren 10ean Nafarroako hauteskunde probintzialak egin ziren lau diputatu foralak izendatzeko. Hiru egun beranduago Lesakako «andre bat»-ek bere eskutitz bat bi egunkaritan ⁸ ager zedin lortu zuen. Eskutitz honetan andreak keza gogorra egiten zuen zeren eta «Foru korporazioan lehendabiziko alditan Aitorren hizkuntz zaharraz mintzatzen den diputaturik ez bait dago».

Unamunok Bilboko Biltoki berrian hitzaldi polemikoa eman zuenean, Bilboko «Centro Vasco» delakoak egindako protesta «La Tradición Navarra»-k argitaratu zuen euskeraz eta erderaz ⁹.

Datu guzti hauek, eta komunikazio honetan agertzen diren beste batzuk, esaten digute euskera nahiko zabalduko zegoela Nafarroan, eta herri-eritzia euskeraren alde zegoela.

2. GOBERNADOREAREN ZIRKULARRA

Benito Franciak, Nafarroako gobernadore zibilak, 1901.eko irailaren 2an euskeraren aurkako zirkular bat argitaratu zuen «Aldizkari Oficial»-ean ¹⁰. Eskribu ho-

2. FAGOAGA, BLAS, «Datos para la geografía histórica del euskera en Navarra», *Euskera*, 1962, 205-213 orrialdeen barnean ematen du «Guía eclesiástica y estado del personal del obispado de Pamplona en 1 de septiembre de 1904» delako aipamen berri. Artikulu honetan ikus ditzakegu zeintzuk ziren parroki euskaldunak eta erdaldunak 1904.ean.

3. URQUIJO, J., «¿Retrocede el vascuence?», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1910, 4, 137-138 orr.

4. IRIGARAY, ANGEL, «Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935», *Euskera*, 1956, I, 40-46 orr. *Euskara eta Nafarroa*, Aranzadi argitaldaria, Iruñea, 1973. *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*, Ediciones y Libros, Pamplona, 1974.

5. GONZÁLEZ OLLE, F., *Vascuence y romance en la historia lingüística de Navarra*, Ediciones y Libros, Pamplona, 1972.

6. «El Eco de Navarra» (aurrerantzean «EN»), 1091-II-17, 2 orr. Iragak berean esaten zen azterketa martxoaren 2an izango litzatekeela, arratsaldeko lauretan.

7. «La Tradición Navarra» (aurrerantzean «TN»), 1903-III-4, 1 orr.

8. «EN», 1901-III-15, 1 orr. eta «TN», 1901-III-15.

9. «TN», 1901-IX-10, 1 eta 2 orr.

10. *Boletín Oficial de la Provincia de Navarra*, 1901-IX-2, 103 zbk. Hona hemen eskribu osoa, idatzi zuen bezala: «Enterado de que en determinadas escuelas de la provincia de la zona montañesa, se da la enseñanza de algunas asignaturas en el idioma nativo de sus habitantes, estimo conveniente dirigirme, como lo hago, a los Maestros, recordándoles, que dentro del recinto de la escuela, no cabe enseñanza de ninguna asignatura, en idioma distinto del español, puesto que así lo reclaman de consuno el interés de la patria, el de esos mismos habitantes y así lo exige terminantemente el cumplimiento estricto de los preceptos legales.

No es sólo al calor de la familia ni en la atmósfera de las afecciones donde se desenvuelve la vida. En otras esferas hay diversas necesidades que satisfacer, y el honrado montañés que conserva como dulce tesoro el antiguo idioma que le legaron sus descendientes, se encontraría solo, aislado de toda comunicación en su misma patria, si no se le enseñara a hablar, a pensar y a sentir en el idioma adoptado por ésta. Esa es la misión que corresponde a la escuela, y el encargado de llenarla es el Maestro. No responder a ella, sería cometer un verdadero delito; y a esto se exponen todos aquellos que por

netan gobernadoreak maisuei oroitarazten zien klaseak euskeraz ematea debekaturik zegoela.

Dirudienez, mendialdeko eskola batzutan maisuek irakasgairen bat euskeraz ematen zuten. Hala ere, gobernadorearen esanetan, irakasgai guztiak gazteleraz eman behar ziren, zeren eta legeak exigitzeaz gain, aberriaren eta bertako biztanleen interesek hori eskatzen bait zuten.

Franciak esaten zuenez, bizitza ez da bakarrik familia barruan garatzen, baizik eta beste arlo batzutan ere. Hori zela eta, mendialdeko biztanleak gaztelera jakingo ez balu edozein komunikaziotatik isolaturik geratuko litzateke.

Gobernadorearen ustez, maisuaren betebeharra ikasleari aberriaren hizkuntzaz mintzatzeko, pentsatzeko eta sentitzen irakastea zen; eta maisuak, lan gutxiago izateagatik, edo bururapen arraroei kasu egiteagatik, eginbehar hori beteko ez balu lege hauste bat egingo luke.

Horretaz gain, gobernadorearen esanetan, kaltetuak ikasleak izango lirateke, gero giza harremanak ezin bait lituzkete izango. Bukatzeko, Francia jaunak oroitarazten zien bai maisuei bai udal agintariei bere aginduak beteko ez balituzte, gero gupidarik gabe beren erantzunkizunak eskatuko litziekeela.

Ikusten dugunez, Francia y Ponce de León gobernadore zibilak ez zuen batere gustokoa euskera. Hain zuzen, eskribu hau egin zuenean hiru aste besterik ez zerman bere kargoan. Bere bizitzari buruz honako hau bakarrik dakigu: mediku ibili zela Filipinetan, Manilako gobernu eta intendentzian parte hartu zuelarik. 1901.eko abuztuan Nafarroara etorri baino lehen¹¹. Orenseko gobernadore zibila izan zen¹².

Bere eskribua «Aldizkari Ofizial»-ean agertzeaz gain, egunkarietan ere argitaratua izan zen¹³. Bestalde esan behar dut duela gutxi Ramón Lapeskerak zirkular honi buruzko artikulu bat idatzi duela prentsan¹⁴.

BND

3. ERREAKZIOAK

3.1. Prentsa

Mende honen hasieran Nafarroan lau egunkari argitaratzen ziren: «El Eco de Navarra», liberal-kontserbadorea; «El Pensamiento Navarro», egunkari karlista; «La Tradición Navarra», integrista; eta «El Porvenir Navarro», errepublikanoa¹⁵. Beren orrialdeetan zehar alderdi desberdinen erreakzioak ikus ditzakegu.

Gobernadore zibilaren eskribuaren berria eman zuen lehenbiziko egunkaria «El Eco de Navarra» izan zen. «Aldizkari Ofizial»-ean zirkularra agertu eta hurrengo

economía de trabajo, propio o ajeno, o tal vez obedeciendo a sugerencias extrañas, olvidan este fundamental deber y descuidan o suplantando por otro el hermoso idioma patrio, el idioma español, en el que debe difundirse la enseñanza, faltando de otra suerte abiertamente a la Ley e infringiendo grave daño a sus discípulos, que habrán de encontrar luego notorias dificultades para sostener las necesarias relaciones indispensables al comercio de las ideas y de los intereses sociales.

En virtud de lo dicho, recuerdo a los señores Maestros y a las autoridades locales el cumplimiento de la ley, y confío, en que por ningún concepto se perturbará la buena marcha de la enseñanza regulada mediante disposiciones categóricas, hallándome dispuesto, en caso contrario, a exigir sin contemplación alguna las responsabilidades consiguientes. Pamplona, 29 de agosto de 1901. EL GOBERNADOR, Benito Francia».

11. Brere izendapenaren data 1901.eko abuztuaren 8a da, Luis Polanco jauna ordezkaturik. 1902.eko abenduan utzi zuen kargoa Luis Soler Casajuana jaunak ordezkaturik izan zelarik. Iturria: *Gran Atlas de Navarra*, Historia, II, CAN, Iruñea, 1986, 255 orr.

12. «EN», 1901-VIII-9, 2 orr.

13. Adibidez «EN» delakoan, 1901-IX-5, 1 orr.

14. LAPESKERA, RAMÓN, «Circular contra el euskera», *Navarra boy*, igandeko gehikaria, 1989-VII-23, 9 orr.

15. Ez da gordetzen «El Porvenir Navarro» egunkariaren bildumarik.

egunean, egunkari kontserbadoreak mendialdeko umeek erdera ikastea oso ongi iruditzen zitzaiola esaten zuten, baina baita ere oso garrantzitsua zela euskera ahantz ez zezaten¹⁶. Hurrengo egunetan gai hori ez zen desagertu egunkari honen orrialdeetatik; «El Eco de Navarra»-ko idazkide batek, Arellanokoa, eskutitz bat bidali zuen euskeraren kontserbazio eta piztearen alde zegoela esanez. Egun berean, egunkari kontserbadorea ez zen ausartu beste euskaltzale baten eskutitz sutsua argitaratzera, baina laburrez idatzi zuen euskaltzale honen ustea: umeek euskera ikasi behar zuten, eta horretarako oso komenigarria zen senideek neskame euskaldun bat izatea¹⁷.

Irailaren bostean «La Tradición Navarra» egunkariak, «Protestamos» izenburua zeramala, artikulua bat argitaratu zuen. Egunkari integristaren ustetan, euskeraren etsaiek euskeraren arrastoak ezabatu eta euskera desagertarazi nahi zuten, beste herrietan egiten zutena egin beharrean, hizkuntza zaindu eta babestu hain zuten. Erdera ongi ikasten zutenei sariak ematea proposatzen zuten, baina bakoitzaren erdera ikaste-ko ala ez ikaste-ko eskubidea errespetatu behar zela adierazi zuten.

Ondoren, «La Tradición Navarra» egunkariak esaten zuten agintariak euskaldunen aurka jarriko balira, herriaren aberriarekiko maitasuna gutxitu, eta botere zentralaren aurkako gorrotasuna sortuko litzatekeela. Bukatzeko, egunkari honek gobernadorea- ren eskribua hutsetan gera zedin eskatzen zuten.

Aste bat pasa eta gero, egunkari integristak «El Siglo Futuro» egunkarian agertu- riko artikulua bat argitaratu zuen. Eskribu honetan Unamunok Bilbon egindako hitzaldia eta gobernadorearen agindua parekatzen ziren, eta euskerak, horrelako goberna- doreak izendatzen zituen erregimenak baino askoz gehiago iraunduko zuela esaten zen.

«El Pensamiento Navarro» delakoak protesta bat egin zuten irailaren lauan atera- tako alean, Don Karlosen jarraitzaileek gobernadorearen eskribuak herriaren sentimen- durik sakonena zauritu zituela adierazi zuten. Karlisten ustez, gobernadorearen aur- kakoa zen. Gainera, karlisten esanetan, herriak euskera zaindu eta euskaldunen kopu- rua haunditu nahi zuten. Adibide gisa, karlistek kontaktzen zuten Diputazioak euskara katedra bat sortzeko oposaketak antolatu zituela, horrela nafar gazteriak euskera ikasiko luke Iruñeko Institutuan. Horretaz gain, guraso askok, nahiz eta euskaldun ez izan, beren seme-alabei euskera ikasterazten zieten.

Egunkari karlistak halaber esaten zuten maisuak ikasleen hizkuntzaz hitz egin behar zuela, eta hiritarrek aberria maitatu zezaten hizkuntza zaindu behar zela. Arti- kulu honetan karlistek esaten zuten botere zentralak herriaren askatasun sailduak kentzeaz gain, eta erlijioaren aurkako ideiak sartzeaz gain, gizakiak erlijioa aparte gehien maite behar duen gauza kendu nahi zela: bere Herriaren hizkuntza. Bukatze- ko, «protesta errespetagarri baina gogorra» adierazi zuten.

3.2. *Virgilio Lassa eta Estanislao Aranzadiren arteko polemika*

Estanislao Aranzadik «Asociación Euskara de Navarra» elkarteko partaideak «El Eco de Navarra»-ko orrialdeetan protesta gogorra egin zuten «botere zentralaren abusu berri honen aurka»¹⁸.

Bere ustez, «Nafarroa eta Euskalerrria, Polonia eta indarrez konkistaturiko herriak bezala» tratatzen zituzten agintariak. «Sakaila ekinaldi» honen aurka Aranzadik hiru «gora» bota zituen: Nafarroara, Euskalerrriara eta gure gurasoen hizkuntza eta arraza- ren ohituretara.

Hiru egun pasa ondoren, Aranzadiren sinadura berriro agertu zen egunkari kon- tserbadorean, aldi honetan Virgilio Lassak egindako deklarazioei erantzuna emanez.

16. «EN», 1901-IX-3, 2 orr.

17. «EN», 1901-IX-7, 2 orr.

18. «EN», 1901-IX-4, 2 orr.

Lassa jaunak, «Heraldo de Madrid» egunkariko berriemailea zenak, komunikatu bat idatzi zuen gobernadorearen eskribuaren aurka protestatu izan zuenari erreakzionarioa deituz.

Aranzadi berehela unkiturik sentitu zen, eta oldartu zen ¹⁹. Bere ustez, Lassa jauna bai zen erreakzionarioa, irain batez, besteen askatasuna zapaldu nahi bait zuen. Aranzadiren esanetan bai gobernadorea bai Lassa jauna despotak ziren, bata «ukase» bat egiteagatik eta bestea txalotzeagatik. Bukatzeko, Aranzadik dei egiten zien nafarrei eta herrialde guztietako euskaldunei herriko libertateak defenda zitzaten «esklabuaren girgilua zeramaten» Lassa bezalako kanpotik etorritako morroiengandik.

Virgilio Lassa ez zen isilik geratu, eta «El Eco de Navarra»-ko zuzendariari komunikatu bat bidali zion ²⁰. Eskribu honetan erreakzionarioak dei egin zien Aranzadiri eta «Cervantesen aberriaren hizkuntz ederra nafarrek ikas zezaten nahi ez zutenei». Gainera, Lassak esan zuen haiek «herria iñorantzian egotea nahi zutela, pentsatzen eta sentitzen irakatsi gabe, herria hobe manciatzeko». «Heraldo de Madrid»-eko berriemaileari ez zitzaion gustatu Aranzadik erabilitako «advenedizo» hitza, eta erantzun zuen bera aragoarra zenez, inor baino behartutago zegoela Nafarroa maitatzera, Nafarroako foruen sehaska Sobrarbeko foruetan bait zegoen. Bere azken hitza zela adierazi baino lehen, Lassak esaten zuen Aranzadiren hitzak «ez zeudela ados herriko jende gehiengoaren sentimenduarekin».

Polemika hau Aranzadik egindako «Nire aberriaren alde» izenburuturiko eskribu luze batez bukatu zen ²¹. Aranzadiren ustez euskaldunek ez zekitela pentsatzen eta sentitzen esatea oso iraina haundia zen. Alde batetik, «Asociación Euskara de Navarra» elkarteko partaideak azaldu zuen nola beste herritako adituek euskera ikertzen zuten inkognita etnografiko eta filologikoak aztertu nahian. Beste aldetik, Aranzadik esaten zuen Lassak ez zekiela sentimendua zer zen, Euskalerriko kantu herrikoiak kontaezina bait ziren.

Estanislao Aranzadik adierazten zuen berak ez zuela nahi inor manciatu, baina aldi berean ez zuela nahi norbaitek, eta are gutxiago «advenedizo»-ek, ez bera ezta bere ingurukoak manciatu zitzaten.

Bukatzeko, Aranzadik esaten zuen berak ez zuela euskera defendatzen hizkuntz prehistorikoa, edo aberatsa, edo filosofikoa izateagatik, baizik eta bere arbasoen hizkuntza zelako, eta bere seme-alaben hizkuntza izan zedin nahi zuelako. Bere esanetan, bakoitzak bazuen edozein hizkuntza ikasteko edo errefusatzeko eskubidea. Norberaren hizkuntza eta baita atzerriko hizkuntzak ere jakitea portaera abertzaleena zen. Aranzadiren ustez euskeraren aurkako eskribua bizitzaren aurkako atentatu bat izan zen, gobernu zentralizatzaile eta antiliberal batek egina.

3.3. Beste zenbait erreakzio

Erreakzioen atala bukatzeko, hona hemen gai honetaz Arturo Campion eta beste zenbait euskaltzaleren eritzia.

Arturo Campionek bere kexa adierazteko Donostiatik eskutitz bat bidali zuen. «El Eco de Navarra» egunkarian agertu zen eskutitzaren bidez ²², Campionek horrela hitzegiten zuen: «Mirando al derecho sacratísimo que todo el pueblo recibe de la naturaleza para retener y conservar la lengua que le es propia, protesto con la mayor energía contra la circular del Sr. Gobernador civil de Navarra sobre la enseñanza de asignaturas en baskuenze dentro de las escuelas públicas».

19. «EN», 1901-IX-7, 2 orr.

20. «EN», 1901-IX-10, 2 orr.

21. «EN», 1901-IX-11, 2 orr.

22. «EN», 1901-IX-11, 2 orr.

Protesta labur honekin ez ziren bukatu Campionen ekintzak, beraz, «Asociación Euskara de Navarra» elkarteko beste euskaltzaleekin batera, lortu zuen 1896.ean Nafarroako Diputazioak egindako euskarari buruzko akordioa berriz agertzea «El Eco de Navarra» egunkarian²³. Beraz, bost urte lehenago Nafarroako Diputazioak²⁴ erabaki zuen «euskal lurreko eskoletako bete beharreko euskera erakustearen deklarazioa kudeatzea Erregearen gobernuaren hurbilean». Nafarroako Diputazioa onartu zuen akordio hau Gipuzkoako Diputazioaren txosten bati erantzun gisa. Txosten honetan Gipuzkoako Diputazioko Suspertze-komisioak eskatzen zuen euskera jakitea derri-gorrezkoa izan zekiela Euskalerriko eskoletan zeuden maisu-maistrei.

Nafarroako Diputazioa ez zen konformatu bere adostasuna adieraztearekin, eta euskarari buruzko eskribu luze eta sutsu bat idatzi zuen²⁵. Eskribu honetan Diputazioak euskararen aldeko deklaraziorik garbiena egin zuen. Hasteko, Diputazioak esaten zuen batez ere hizkuntzan nabaritzen zela euskalerritar guztien anaitasuna. Gero, azaltzen zuen euskeraren mugarririk inportanteenak Nafarroako historian zehar: Santxo Jakintsuaren adierazpena («lingua navarrorum»), euskal toponimoak, Etxepare eta Axularren liburuak, euskal olerki lehenbiziko lehiaketa 1609.ean, Aita Moreten eskribuak, etab. Ondoren, Diputazioak esaten zuen euskera gurea zela, eta zuzenbide naturala errespetatzeko euskera zaindu beharko genukeela. Bukatu baino lehen honelako esaldiak bota zituen: «Hizkuntza berezkoa galtzea desnaturaltzea da», «Euskalerrriak badu ezbairik gabeko eskubidea bere hizkuntza mantentzeko», Estatuak hori ez badu errespetatzen «iraina egiten dio anaitasun nazionalari».

4. HENDAIAKO EUSKAL BILTZARRA

Gobernadorearen eskribua agertu baino hilabete bat lehenago, «El Eco de Navarra» egunkariak iragartzen zuen Euskal biltzar baten bilketa. Hendaiia izango litzateke hiri anfitrioiia, eta joandakoen artean Adema eta Arturo Campion izango liriateke²⁶.

Baina biltzarra ez zen uztailan bildu, irailan baizik. Izan ere, «La Tradición Navarra»-k irailaren lauan biltzarraren berria txalotu zuen hitz hauekin: «Hendaiian hilak 16an euskal Biltzar bat egingo da, euskal ortografiaren bateratasuna ikertzeko eta, ahal bada, euskeraren arau filologikoak ikasteko. Hogeitamar baino gehiago hizkuntzari printzipal eta euskal literatu, bai Espainia aldekoak bai Frantzia aldekoak, inskribaturik daude biltzar honetan parte hartzeko».

«El Pensamiento Navarro» egunkari karlistak esaten zuen irailaren hamazazpian Hendaiako biltzarra euskararen «euspen eta zabaltasuna» lortzeko zela, «batez ere Hegoamerikan, euskal joankoiek inportatu bait dute, eta baita Euskalerriko zazpi herrialdeetan ere». Egunkari karlistaren arauera, biltzarra egin aurretik, Iruñeko, Bilboko, Gasteizko, Donostiako eta Hendaiako egunkariek Unamunok egindako hitzaldiaren aurka protesta egin zuten.

Euskal Biltzarra irailaren 16-18 bitartean bildu zen, berrogeiren bat lagun elkartu zirela²⁷, egunkari integristak 300 eta karlistak 100 lagun bildu zirela esan bazuten ere²⁸.

23. Eskribu hau 1901.eko urriaren 29, 30 eta 31ko argitaraldietan agertu zen. Egunkariak ohar hau jarri zuen: «A ruego de varias personas amantes del vascuence publicamos a continuación la circular que escribió la Diputación foral en 1896, sobre la hermosa lengua euskara». Ramón Lapeskerak dio euskaltzale hauek Campión eta «Asociación Euskara de Navarra» elkarteko partaideak zirela. LAPESKERA, RAMÓN, «Diputación de Navarra y el euskara», *Navarra hoy*, igandeko gehikaria, 1989-VIII-6, 7 orr.

24. Ramón Eseverri y Eseverri, Ulpiano Errea y Lorente, Ricardo Gastón y Ruiz, Jesús Elorz y Elorz, Serafín Mata y Oneca, Antonio Martínez Prado eta Antonio Iturria jaunak osaturik.

25. *Nafarroako Foru Diputazioaren Akta Liburua*, 1896, 107-111 orr.

26. «EN», 1901-VII-5, 2 orr.

27. LAPESKERA, RAMÓN, «Polémico Congreso de Hendaya», *Navarra hoy*, igandeko gehikarian, 1989-VIII-13, 7 orr. Esaten du Biltzarrera 41 lagun joan zirela, haietako 22 Hegoaldekoak.

28. «TN», 1901-IX-17, 2 orr. «El Pensamiento Navarro» (aurrerantzean «PN», 1901-IX-17, 1 orr.

Lehenbiziko saioa arratsaldeko seiak laurden gutxitan aurkezpenarekin hasi zen. Ondoren, biltzarraren mahaikoak hautatu zituzten: M. Adema, Arturo Campion, Sabino Arana, eta Guilbeau, azken hau idazkari orokorra izanik. Biltzarra hiru ataletan zatitu baino lehen, Ademak, Campionek eta Aranak biltzarraren helburuak azaldu zituzten, euskararen kontserbazioa eta zabaltasunarako baliabide indartsuak jar zitezen eskatuz. Saio honetan akordio hauek onartu ziren:

— Prentsari eskribuak igortzea euskaltzale eta euskalarien kongresuan parte hartzeko eskaintza emanez.

— Laguntza hau lortuko litzatekeen momentuan, euskal ortografia bateratasuna lortzeko proiektu batzuk egitea, hobereana aukeratzeko.

— Biltzar hau Hendaian edo Hondarribian biltzea, euskaldun eta erdaldunekin, azken hauek boturik gabe.

— Barne erregimenaz arduratzeko komisio bat izendatzea, eta «Asociación de estudios vascos» ezartzea.

— Gobernu junta bat izendatzea: Presidente, Adema; presidenteordeak, Campion eta Arana; idazkaria, Guilbeau; diruzaina, Diriart; bokalak, Arbibide, Azkue, Brauzain eta Cortazar. Haien betebeharrak sail batzuk sortzea eta behin betiko erreglamendua idaztea izango lirateke ²⁹.

«Gernikako arbola» eta beste euskal abesti batzu entzun ondoren, biltzarraren bigarren sesioa sekretuan egin zen. Egunkari karlistak kontatzen zuen bezala, 1902.eko irailan Hondarribian beste biltzar bat ospatzea erabaki zuten ³⁰.

Biltzarraren azken egunean «Federación Literaria Vasca» sortzea erabaki zuten, euskera zaintzeko eta ikasteko. Halaber, proposatu zen «behar diren errekurtsioak biltzea era Frantzian eta Estatu Batuetan bi Unibertsitate eraikitzea, eskola batzuekin, euskera irakaskuntzaren oinarria izan dadin, bi belaunalditan euskera batera dadin».

Bi hilabete beranduago Euskal Biltzarreko komisio iraunkorra (Ademak, Campionek, Arbelbidek, Azkuek, Brauzainek, De Guerrak, Diriartek, Mugicak, Daranatzek eta Guilbeaurek osaturikoa) Hondarribiko udaletxean bildu zen, eta akordio hauek onartu zituen ³¹:

1) Sabino Aranaren euskal ortografiaren batasunari buruzko plangintza martxan jartzea.

2) Batzarkide guztiei eskutitz bat bidaltzea, haiek esan zezaten:

— ea ados zeuden euskara zaintzeko elkarte baten sorkundearekin, «Federación Literaria Vasca» izenekoa.

— ea ados zeuden izen honekin, ala beste izen bat proposatzen zuten.

— ea onartzen zituzten Hendaian izendaturiko komisio zuzentzailea, eta hiru bokal berriak.

— ea onartzen zuten urteroko sei pezetako kuota.

3) «Federación Literaria Vasca» sortzea, batzarkideen gehiengoak baietz esanez gero.

4) Arbelbidek eta Brauzainek egindako, eta komisioak onartutako arautegi proiektua eramatea botatzeko 1902.eko irailaren Biltzarrerara.

5) 1902.eko irailaren 11an, Hondarribian ortografiaren batasunaz eztabaidatzeko beste Biltzar bat biltzea.

6) Bidaltzea batzarkide guztiei euskal hizkuntzako fonetika-lauki bat.

7) Gonbidatzea Arana jaunari eskribu bat idatz zezan, eta azal zezan bere plangintzaren garbi ez zegoen zati bat.

Biltzarrerako proposaturiko helburuak ez ziren bete. Burukideen arteko tirabirak, eta lana beraren zailtasunak oztupo haundiegia ziren.

29. «PN», 1901-IX-18, 1 orr.

30. «PN», 1901-IX-19, 1 orr.

31. «TN», 1901-XI-22, 1 orr.

Hurrengo urtean, komite zuzentzaileak segitu zuen, baina arazoak gero era haundiagoak izan zirenez³², ezin zen lortu euskaltzale haien helburua.

Gobernadoreak egindako euskararen aurkako erasoak bazuen euskaltzaleen ekin-tzek baino indar gehiago, eta erakundeen laguntzarekin euskera piska bat atzerago joan zen. Aurrerantzean gerta ez bedi!

BND

32. LAPESKERA, RAMÓN, « Arana frente a Campión », *Navarra hoy*, igandeko gehikarian, 1989-VIII-20, 7 orr.